

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

765/2021 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen baitira honako foru agindu hauek: abenduaren 10eko 770/2014 eta martxoaren 9ko 133/2005, hurrenez hurren onesten dituztenak 187 eta 198 ereduak

Arabako Foru Aldundiak ahalik eta zerga informaziorik zehatzena lortzeko, hura unean uneko errealitatekin bat etorri eguneratua egon behar da, albait gutxien eragiteko zerga betebeharra dutenengan informazioa eman beharra betetzean eta, era berean, beste zerga administrazio batzuetan indarrean dagoenarekin koordinatu behar da.

Horregatik, hainbat aldaketa egin behar da zenbait informazio betebeharrak bete behar izatearen ondorioz informazioz hornitzeari buruzko araudian. Komeni da aldaketa horiek arau berdinean integratzea –halaxe egin izan da beste ekitaldi batzuetan–, xedea baita zerga betebeharra dutenek ahalik eta ondoen jakitea zer aldaketa egiten diren.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da onestea 187 eta 198 ereduari buruzko informazio aitortpenak onetsi zituzten foru aginduak aldatzeko foru agindu bat.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredu, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla eta egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteroko laburpena. Urteko laburpena.

Ondoko aldaketa hau egiten da abenduaren 10eko 770/2014 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 187 ereduko ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan:

Aldatzen da “eskuraketaren edo besterentzearen sorburuaren edo jatorriaren gakoa” eremua, 2 motako erregistroko (eragiketa erregistroa) 142 posizioa duena, II. eranskinean ageri diren 187 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
142	Alfabetikoa	<p>ESKURAKETAREN EDO BESTERENTZEAREN SORBURUAREN EDO JATORRIAREN GAKOA</p> <p>Eremu honetan, akzioen edo partaidetzaren eskuraketaren edo besterentzearen edo harpidetza eskubideen salmentaren sorrera edo jatorria adierazi behar da, ondoko gako hauen arabera:</p> <p>D Ondasun erkidegoa desegitea edo erkideak banantzea.</p> <p>C Gauza erkidea zatitzea.</p> <p>G Irabazpidezko sozietatea desegitea edo senar-emazteen ondasunen partaidetzako eraentza azkentzea.</p> <p>M Kosturik gabekoa, heriotzagatik.</p> <p>I Kosturik gabekoa, inter vivos.</p> <p>F Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubide bereziari heldutako funtsek edo sozietateek bat egitea. Gako honetan ez dira sartzen partaideakategite prozesutik bereizteko daukan eskubidea erabiltzearen ondoriozko partaidetza itzulketak.</p> <p>E Ez atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu behar ez zaion ondare irabazia edo errenta, baldin eta eragiketa ezin bada sartu berariaz aurreko gako batean.</p> <p>H Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateenategiteak, baldin eta abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubide aplikatu ahal bada.</p> <p>Gako hau ipini behar duteategite prozesuan sartzen diren inbertsio kolektiboko entitate guztiek.</p> <p>Orobat, inbertsio kolektiboko beste erakunde bati gerora egindako traspasoetan, gako hau funts xurga tzailearen entitate kudea tzaile edo merkatura tzaileak adierazi behar du, traspasoaren eskurapen balio eta data tzat bat-egitearen hartu behar direnean.</p> <p>J Inbertsio funtsen eta kapital aldakorreko inbertsio sozietateenategiteak, ezin bada aplikatu abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, VI. tituluko VII. kapituluaren ezarritako araubidea.</p> <p>Gako hau erabili behar duteategite prozesuan sartzen diren inbertsio kolektiboko entitate guztiek.</p> <p>K Inbertsio kolektiboko sozietateetatik liberatutako akzioak entregatzea.</p> <p>O Beste kasu batzuk Gako honetan sartu behar dira aurreko gakoetan sartu ez diren harpidetza, erosketa, eskualdaketa eta itzulketako ohiko kasuak, bai eta harpidetza eskubideen salmenta atxikipendunak ere.</p>

Bigarrena. Aldatzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren martxoaren 9ko 133/2005 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 198 eredu, finantza aktiboekin eta beste balore higikor batzuekin egindako eragiketen urteko aitorpenarena, bai eta haren barruko orrien orde ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarria erabiltzeko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Ondoko aldaketa hauek egiten dira martxoaren 9ko 133/2005 Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 198 eredu ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarriak bete beharreko diseinu fisiko eta logikoetan:

Bat. Aldatzen da "eragiketaren gako" eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 134 posizioa duena, II. eranskinean ageri diren 198 eredu diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
134	Alfabetikoa	<p>ERAGIKETAREN GAKOA</p> <p>A Eskubideen eskuratzea edo eraketa.</p> <p>B Eskubideak eskuratzea edo eratzea irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuak (burtsako eragiketa bereziei eta balore kotizatuen burtsaz kanpoko eskualdatzei eta batez besteko truke haztatuei buruzkoa) 2. artikuluan jasotzen dituen eragiketen bidez.</p> <p>C Trukea.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>D Bihurketa.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, bihurketarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko bihurketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>E Eskubideak ezereztea edo azkentzea.</p> <p>F Jaulkipen primaren itzulketa.</p> <p>Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, "H" gakoa jarri behar ez denean.</p> <p>G Kapitala murriztea ekarpenak itzuliz.</p> <p>Gako hau jarri behar da mota honetako eragiketetan, "I" gakoa jarri behar ez denean.</p> <p>H Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 2014/65/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreen jaulkipen primaren itzulketa.</p> <p>I Kapital murrizketa ekarpenak itzuliz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren maiatzaren 15eko 2014/65/EE Zuzentarauan araututako merkatuetakoren batean negoziatzeko onartuta ez dauden eta sozietate edo entitateen funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreei dagokienez.</p> <p>J Kapital murrizketa baloreak amortizatuz.</p> <p>K Banatu gabeko mozkinetatik sortutako kapital murrizketa.</p> <p>L Baloreen splita eta kontrasplita.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, splitarena edo kontrasplitarena bera eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko split (edo kontrasplit)/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
		<p>O Maiatzaren 10eko 7/2004 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian araututako balore maileguak.</p> <p>P Balore maileguaren eraketa.</p> <p>Q Balore maileguaren azkentzea.</p> <p>S Harpidetza.</p> <p>T Eskualdatzea, amortizazioa edo itzultzea.</p> <p>U Eskualdatzea, amortizazioa edo itzultzea irailaren 27ko 1416/1991 Errege Dekretuak (burtsako eragiketa bereziei eta balore kotizatuen burtsaz kanpoko eskualdatzei eta batez besteko truke haztatuei buruzkoa) 2. artikuluan jasotzen dituen eragiketen bidez.</p> <p>V Balore trukea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 105. artikuluko baldintzak betetzen dituena.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, trukearena berarena eta dagokion harpidetzarena. Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko truke/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>X Akzio erabat ordainduen ematea.</p> <p>Gako hau jarri behar da, aitortuak alde aurretik zeuzkan harpidetza eskubideei dagozkien akzioetarako.</p> <p>Aitortuak alde aurretik zeuzkan gainerako harpidetza eskubideei dagokienez, baldin eta nahikoa ez badira eta horregatik beste eskubide batzuk eskuratu baditu akzio berriak harpidetzeko, ez da jarriko X gako hau, ezpada elkarren artean loturik dauden bi erregistro independente aitortuko dira: bata harpidetza eskubideak eskuratzeagatik (A eragiketa gakoa) eta bestea akzioak harpidetzegatik (S eragiketa gakoa).</p> <p>Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko eskuratzegatik/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>Y Bat-egitea, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, bat-egitearena bera eta dagokion harpidetzarena.</p> <p>Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko bat-egite/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>Bat-egite eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, C gakoa jarri behar da.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
		<p>Z Zatiketa, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak betetzen direnean.</p> <p>Bi eragiketa aitortu behar dira, zatiketarena bera eta dagokion harpidetzarena.</p> <p>Loturiko eragiketa hauek, dagokion eragiketaren hurrenkera zenbakiaz gainera ("HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 84-90 posizioak), loturiko zatiketa/harpidetza eragiketaren kasuan kasuko hurrenkera zenbakia identifikatu behar dute ("LOTURIKO ERAGIKETAREN HURRENKERA ZENBAKIA" eremua, 341-347 posizioak).</p> <p>Zatiketa eragiketak ez baditu betetzen sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 102. artikuluko baldintzak, C gakoa jarri behar da.</p> <p>W Bestelako eragiketak.</p> <p>Eragiketak behar direnean (C, D, L, V, X, Y, eta Z eragiketa gakoak), "ERAGIKETAREN EKITALDIA" eremua beteko da (368-371 posizioak), ekitaldi hori aitopenarena ez den ekitaldi bat denean.</p>

Bi. Aldatzen da “konpentsazioak” eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 224-235 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
224-235	Numerikoa	<p>KONPENTSAZIOAK</p> <p>Baloreak mailegatzeko eragiketen kasuan –horretarako, “O” jarri da “ERAGIKETA GAKOA” eremuan (2 motako erregistroaren 134 posizioa)–, konpentsazioen zenbatekoa jarriko da eremu horretan.</p> <p>“ERAGIKETA GAKOA” eremuaren gainerako gakoetan (2 motako erregistroaren 134 posizioa), “V”, “Y” eta “Z” gakoetan izan ezik, urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 81etik 84.era bitarteko artikuluetan ezarritako balore negoziagarriak likidatzeko prozeduratik sortutako likidazioko konpentsazioen eta doikuntzen zenbatekoa idatziko da.</p> <p>Eremu hau bi eremutan banatzen da:</p> <p>224-233 Konpentsazioen zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>234-235 Konpentsazioen zenbatekoaren zati hamartarra.</p>

Hiru. Aldatzen da “emandako/hartutako diru konpentsazioa” eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 348-360 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
348-360	Alfanumerikoa	<p>EMANDAKO/HARTUTAKO DIRU KONPENTSATZIOA</p> <p>ERAGIKETA GAKOA” eremuan (134 posizioan) “V”, “Y” edo “Z” gakoa jartzen denean, hartan emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoa jarri behar da, hala badagokio.</p> <p>Eremu hau honakoetan banatzen da:</p> <p>348 Konpentsazioaren zeinua: Bakarrrik “N” balioarekin idatziko da, aitortuak emandako diru konpentsazioak direnean.</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
		<p>349-358 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zenbatekoaren zati osoa.</p> <p>359-360 Emandako edo jasotako diru konpentsazioaren zati hamartarra Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

Lau. Aldatzen da “loturiko eragiketaren ekitaldia” eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 368-371 posizioak dituen, II. eranskinean ageri diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Honela geratzen da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
368-371	Numerikoa	<p>ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA</p> <p>Eremu hau “ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN HURENKERA ZENBAKIA” (341-347 posizioak) aitortuaren ez den ekitaldi batekoa denean beteko da soilik.</p> <p>Adierazitako eragiketa oraindik egiteko badago, eremu honetan “0001” idatziko da.</p> <p>Adierazitako eragiketa aurreko ekitaldi batekoa bada, eremu honetan ekitaldi hori idatziko da.</p> <p>Gainerako egoeretan, eremu hau zeroz beteko da.</p>

Bost. Gehitzen da "bitartekariaren IFZ" eremu berria, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 372-380 posizioak edukiko dituen, II. eranskinean ageri diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Hona hemen haren edukia:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
372-380	Alfanumerikoa	<p>BITARTEKARIAREN IFZ</p> <p>Adierazitako eragiketa ("ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN ZENBAKIA", 341-347 posizioak) beste bitartekari baten bidez egiten bada, aitortzaileak zerrendaturiko eragiketako bitartekari horren identifikazio fiskalaren zenbakia idatziko du eremu honetan.</p> <p>Eremu hau eskuinetara lerrokatuta egongo da. Azken posizioa kontrol karaktereari dagokio eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira, IFZri dagozkion betebeharrak arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa) aurreikusitako arauei jarraituz.</p>

Sei. Gehitzen da "bitartekariaren abizenak eta izena, sozietate izena edo deitura" eremu berria, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 381-420 posizioak edukiko dituen, II. eranskinean ageri diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan. Hona hemen haren edukia:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
381-420	Alfanumerikoa	<p>BITARTEKARIAREN ABIZENAK ETA IZENA, SOZIETATE IZENA EDO IZENDAPENA</p> <p>Adierazitako eragiketa ("ADIERAZITAKO ERAGIKETAREN ZENBAKIA", 341-347 posizioak) beste bitartekari baten bidez egiten bada, aitortzaileak bitartekari horren izen osoa edo sozietate izena idatziko du eremu honetan, honela:</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
		<p>a) Pertsona fisikoa bada, honela idatziko da: lehen abizena, zuriune bat, bigarren abizena, zuriune bat, eta izen osoa, hurrenkera horrexetan nahitaez. Aitortua adingabea bada, eremu honetan adingabearen abizenak eta izena jasoko dira.</p> <p>b) Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, sozietatearen izena edo erakundearen izen osoa idatziko da, anagramarik gabe.</p>

Zazpi. "zuriuneak" eremua, 2 motako erregistroko (aitortuaren erregistroa) 372-500 posizioak dituen II. eranskinean jasotzen diren 198 ereduko diseinu fisiko eta logikoetan, 421-500 posizioetara aldatzen da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2021. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 16a

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA